

# **KULTURA- ARTEKOTASUNA**

BL-EGIZU	1. HELBURUko 4. ekintzari ekarpena
EKARPENA	Euskarazko eredu en alde bakarrik egitea.
Ekarpena jasota dagoela ulertzen da;	
AZALPENA	azken urteotan Getxoko Udalak euskarazko eredu en aldeko sustatze lana egin du: eskutitza gurasoei, adituen hitzaldiak eta abar. Udalak horretan jarraitzeko eta ahal bada sakontzeko asmoa du.

BILDU	1. HELBURUko 5. ekintzari buruzko galdera
GALDERA	Berbalaguna edo bikotekide bezalako programak ezin dira ezarri kasu honetan, euskaldun bat eta etorkin ba, edo etorkin taldea, euskara eta gure kultura euri hurbiltzeko eta euskara hurbiltzeko?
ERANTZUNA	Immigrazio zerbitzuarekin elkarlanean, harrera programaren barruan beti ere eta zehaztasun gehiagoren zain, helburua “kultur-bikoteen” eredu a jarraitzea izango da; euskal kulturaren ezagutza eta tokiko informazioa eskaintzea bilatuko da.  Udal barruko koordinazioaz gain, Udala elkarlanean ari da, besteak beste, EGIZUekin Etorkinen Plataformarekin, batetik, euskara etorkinei hurbiltzeko eta bestetik, euren kulturak gurera hurbiltzeko.

Atzerritar jatorrizko helduen euskararekiko hurbilpena, begikotasuna, gaitasuna eta erabilera bultzatu

BL-EGIZU	2. HELBURUari ekarpena
EKARPENA	Atzerritar jatorrizko helduek euskaraz doan ikasteko aukera izatea.
Ez da ekarpena onartzen	
AZALPENA	Getxoko Udalak ez du bitarteko nahikorik herriko atzerritar jatorrizko pertsoneri doako euskalduntzea eskaintzeko.  Horrelako neurri batek gainera tentsio soziala biztuko luke; izan ere nor den atzerritar erabakitze ko zailtasunari, bertoko erdaldunei eskaini ez zaizkien baliabideak eskaintzea dakarrelako.  Horren aurrean, Udalak etorkin helduak gainontzeko ohiko euskalduntze-eskaintzetan txertatzea hobesten du, berauentzako ordutegi egokiak sor daitez en borrokatuz eta edozein getxoztarri eskaintzen zaizkion onura ekonomikoak eskainiz.  Getxoko Udalak helduaroan euskara ikastearen doakotasuna ezin du bere gain hartu, hala ere esfortzu handia egiten du bide horretan: Udal Euskaltegia

	izateaz gain, herriko beste euskalategiei ere laguntzen die Getxoko Udalak; azkenik, euskara ikasteko diru-laguntzak eskaintzen dizkie herritarrei eta horretan baldintzak malgutzeko ahalegin handia egin du Udalak herritarrek ahalik eta aukera gehien izan dezaten laguntza hauek jasotzeko. Baina Udala ez da euskara ikasteko laguntzak eskaintzen dituen bakarra; azken urteotan, Bizkaiko Foru Aldundiak <i>Euskara Eskura Txartela</i> sortu du ikasle bizkaitarrei laguntzeko eta HABEk ere laguntzak eskaintzen ditu mailaren bat egiaztatzen dutenei. Gure ustez, hauek guztiek lagundu egiten dute doakotasunaren bidean.
--	--

GUK	2. HELBURUKo 7. ekintzari ekarpena
EKARPENA	Se incentivará el aprendizaje del euskera a través de becas que impliquen la gratuidad de los cursos cuando se cumpla el aprovechamiento de los mismos.
Se considera qu ese cumple con lo propuesto	
AZALPENA	<p>Getxoko Udala ez da euskara ikasteagatik laguntza eskaintzen duen erakunde publiko bakarra; Jaurilaritzak HABEren bitartez eta Bizkaiko Foru Aldundiak ere laguntzen dute (<i>Euskara Eskura txartela</i>).</p> <p>Erakunde publikook, modu osagarrian jokatzeko arlo honetan; Bizkaiko Foru Aldundia eta HABEren laguntza-sistemek ikasleak aprobetxamendu akademikoa laguntzen duten bitartean, Getxoko Udalak euskaltegiko asistentzia laguntzen du.</p> <p>Diru kopuruari buruz ere modu osagarrian jokatzeko da; zenbait kasutan euskara ikastea doakoa da eta baldintzak betetzen dituzten kasurik txarrenetan, ikasleak ordaindutako matrikularen %80a laguntzen da.</p> <p>Beti ere hiru erakundeon arteko informazio trukaketaren bitartez gain-ordainketa ekiditen da.</p> <p>Getxoko Udalak esfortzu handia egiten du helduen euskalduntzean: Udala Euskaltegia izateaz gain, herriko beste euskalategiei ere laguntzen die Getxoko Udalak; azkenik, euskara ikasteko diru-laguntzak eskaintzen dizkie herritarrei eta horretan baldintzak malgutzeko ahalegin handia egin du Udalak herritarrek ahalik eta aukera gehien izan dezaten laguntza hauek jasotzeko.</p>
ACLARACIÓN	<p>EL Ayuntamiento de Getxo no es la única institución pública que ayuda a l aprendizaje del euskera; en concreto el Gobierno Vasco a través de HABE y la Diputación Foral de Bizkaia también realizan aportaciones destinadas al aprendizaje de la lengua.</p> <p>Las instituciones públicas actuamos de manera coordinada y complementaria; mientras la Diputación y el Gobierno Vasco ayudan el</p>

	<p>aprovechamiento académico que pueda tener el/la alumna/o, el Ayuntamiento de Getxo valora la asistencia al euskaltegi.</p> <p>Esta complementariedad también se extiende a lo subvencionado ya que en algunos casos el aprender euskera puede resultar gratuito y en el peor de los casos y siempre que se reunan las condiciones mínimas establecidas, se recupera el 80% de lo invertido en la matrícula.</p> <p>La sobrefinanciación se evita con el trasvase continuado de información entre las tres instituciones.</p>
--	---

<p>BILDU <span style="float: right;">3. HELBURUKo 9. ekintzari ekarpena</span></p>	
EKARPENA	<p>Oso beharrezkotzat jotzen dugu egun Zurrumurrurik ez taldeak egiten duen lanaren berrikuspena egitea, helburu eta edukien aldetik euskarari eta euskal kulturari dagokionez.</p>
<p>Onartzen da, ez da formulazioa aldatzen</p>	
AZALPENA	<p>Euskara Zerbitzuak “zurrumurrurik ez” ekimenaren barruan eta <i>Euskaraldia</i> aitzakia, etorkinak-euskara-emakumeak ardatza jorratu izan du eta gehiago sakondu ez bada, partaideek ez dutelako egoki ikusi izan da.</p> <p>Bai “Zurrumurrurik ez” ekimena bai “kultur-bikoteena” bezala definitutakoa nahiz “Bizilagunak” edo kulturen arteko kontaktua eta ezagutza sustatu nahi duen edozein ekimen positiboa eta erabilgarria da euskara eta euskal kulturaren existentzia eta inportantzia komunikatzeko.</p> <p>Udal barruko koordinazioaz gain, Udala elkarlanean ari da, besteak beste, EGIZUrekin eta Etorkinen Plataformarekin, batetik, euskara etorkinei hurbiltzeko eta bestetik, euren kulturak gurera hurbiltzeko.</p>